

HIZKI NAHASIAK

Materiala:

- ☞ Imanarekin erabiltzeko bost arbel.
- ☞ Hizki imandunak.
- ☞ Denbora neurgailua = CDa.
- ☞ Hitzen txartelak.
- ☞ Arbela eta errotuladorea (aukera izanez gero).
- ☞ Puntuak.

Jokatzeko era:

1. Talde bakoitzari imanarentzako arbela eta hitzak osatzeko behar dituzten hizki guztiak emango zaizkio.
2. Helburua hizki guztiak erabiliz hitzak osatzea izango da.
3. Gidariak hitza osatzeko behar dituzten letrak nahastuta esango ditu, taldekideek hizki horiek beraien arbelean jarriko dituzte.
4. Hizki guztiak emanda daudenean denbora hasiko da eta musika jarriko da; doinuak dirauen bitartean (1' 20") hitza osatu beharko dute.
5. Denbora bukatzean, gidariak "arbelak gora" esango du.



Araukak:

- ☞ Hiztegia aurki dezakegun hitza asmatu beharko da.
- ☞ Hitzak deklinatuta egon daitezke.
- ☞ Izen bereziak ez dira onartuko.
- ☞ Gidariak erabakiko du hitzak ontzat eman ala ez.
- ☞ Emandako hizki horiekin hitz bat edo gehiago osa daiteke.
- ☞ Puntuak: emandako hizki guztiak erabiliz gero 10 puntu lortuko dituzte eta, bestela, erabilitako bakoitzarengatik puntu bat.

